

Azpeitiko udal gobernua honako mozio hau aurkeztera behartuta sentitu da, azken asteetan Corrugadosen gaiak hedabideetan sortu duen nahasmenaren eta, orain, EAJ taldeak gaiaren inguruan mozio bidez gaia astintzen jarraitzeko hartutako erabakiaren aurrean:

2013az geroztik Corrugados itxita dago, ez dago jarduerarik eta berriro ere gaia aireratu da. Adierazi nahi dugu enpresa irekitzeko pauso bakar bat eman gabe dagoenean, eraman dela gaia hedabideetara. Ezin da gaia seriotasunez landu proiekturik ez badago. Penaz ikusi dugu hainbat erakundek Corrugados ireki ahal izateko oinarrizko pausoak gutxietsi dituztela, Azpeitiko herriarentzat pisuzkoa den gai batekin zalaparta mediatikoa sustatzeko.

Orain baino lehenagotik du Azpeitiko Udalak Cristian Lay enpresarekin harremana. Horren erakusle, 2020ko azaroan 13an Azpeitiko Udalak eta Cristian Lay-k argitaratu genuen prentsa ohar bateratua. Bertan adierazi genuen Corrugados lantegia martxan jartzea ez zela bideragarria, eta iraganeko lantegiaren lurrei aterabide egokia bilatzeko elkarlanean aritzeko borondatea genuela. Ordurako, Azpeitiko Udalak, 2020ko ekainaren 2an izandako Tokiko Gobernu Batzordeko erabaki bidez, Corrugadosek herrigunean duen lantegi zaharreko makinaria desmontatzeko baimena emana zuen. Tartean, Eusko Jaurlaritzak, bete beharreko ingurumen betekizunen inguruan ere informatu duelarik.

Otsailaren 18an jakinarazi zion udalari Cristian Lay enpresak, Corrugados lantegia martxan jartzeko balizko aukera aztertu nahi zutela. Eta Azpeitiko Udala aukera hipotekiko hori landu eta bideratzen saiatu den arren, bi bilera labur bakarrik egin dira inplikaturako erakundeen artean, eta bakarra eragile guztiekin, eta sortutako burrunba mediatikoaren erdian, ez da lortu gaia behar besteko sakontasunarekin lantzea.

Tamaina eta izaera honetako lantegiak martxan jartzeko prozedura arautua dago hainbat legetan. Eta Corrugadosen kasuan, jarduera arrisku handikoa edota klasifikatua bezala izendatua dagoenez, 39/2015 (Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legea) eta 3/1998 (Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena Babesteari buruzko Legea) legetan ezarritako jarraibideak segi beharko lituzke. Cristian Lay enpresak, asmo orokorretatik harago, ez du enpresa martxan jarri ahal izateko inolako urratsik eman. Ezta horrelako jarduera bat martxan jarri aurretik ohikoa den kontsulta formalik aurkeztu ere.

Martxoaren 31ko azken bileran, Jaurlaritza eta Gipuzkoako Foru Aldundiko ordezkariak konfirmatu zuten, Azpeitiko Udalak bezala, beraiek ere ez daukatela ez proiektu ekonomikorik, ezta lantegia martxan jarri ahal izateko proiektu teknikorik.

2021eko otsailaren 27an, proiektu zehatzik gabe eta oraindik ere erakundeen arteko lehen bilera egin gabe zegoenean, erabaki zuen Azpeitiko EAJk Corrugados-en gaia hedabideetara bideratzea. Eta, egunez egun, bai sortuko lirakeen lanpostu hipotetikoen kopurua, baita dimentsio mediatikoa ere handitzen joan ziren etengabe. Horrela, Azpeitiko Udala eta Azpeitiko herria zurrumbilo mediatikoaren erdian kokatu dute.

Egoera honen aurrean, Azpeitiko Udalak adierazi nahi du:

1- Azpeitiko Udalak ez dauka Corrugados irekitzeko eskaera ofizialik. Cristian Lay empresak ez du lantegia martxan jartzeko prozedura hasi ere egin. Ez dago Corrugados irekitzeko proiektu ekonomikorik, ez dago negozio planik, ez dago lantegia martxan jarri ahal izateko proiektu teknikorik.

2- Azpeitiko udalak arduragabea deritzo Corrugadosen gaia hedabideetara bideratu izana. Alderdikeriaz jokatu eta gaia modu interesatuan nahasteak kaltea eragin dio Azpeitiko herriari. Udal autonomiarekiko errespetua eskatu nahi dugu eta gogorazi udal ordezkariok azpeitiarren interes orokorraren alde lan egiteko betebeharra daukagula.

3- Azpeitiko Udalak Azpeitiko herriarekiko errespetua eta begirunea eskatu nahi ditu. 2013an Corrugadosen itxiera dramatikoak izan zen, langileek eta beren familiek, azpeitiarrek, sufritu zuten. Baina Azpeitiak eta azpeitiarrok jakin izan dugu egoerari aurre egin eta erronkei erantzuten. Azpeitia etorkizunari baikortasunez eta erantzukizunez begiratzen dion herria da.

4- Azpeitiko Udalak berretsi nahi du sustapen ekonomikorako duen konpromisoa eta lanpostuak sortzeko aukerarik txikiena ere lantzeko duen prestutasuna. Edonola ere, edozein lantegi irekitzeko jarraitu beharreko prozedura eta baldintza guztiak zuzen bete behar dira.

5.-Corrugadosen kasuan, Eusko Jaurlaritzak onartuko Plan Territorial Partzialean, ad hoc aldatu zena, expresuki Trukutxoko eremuan Corrugadosen jarduera siderurgikoa gauzatzeko erabakia jaso dago. Baita, 2013an EH Bildu eta EAJ-aren adostasunez Azpeitiko Udalak onartutako plan orokorrean ere.



Nagore